

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

152/2022 Dekretua. Eskuordetze berezia zinegotzi bati, baimentzeko ezkontza zibila 2022ko abuztuaren 13an

Abenduaren 23ko 35/1994 Legearen artikulua bakarrik aztertu da, zeinak Kode Zibila aldatzen duen alkateek ezkontzarako baimena emateari dagokionez. 51. artikulua idatzi berriak lehen puntuan ezartzen du erregistro zibilaren ardura duen epaileak, ezkontza egingo den udalerriko alkateak edo eskuordetutako zinegotziak dutela ezkontza baimentzeko eskumena.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.s) artikulua, artikulua horren 3. puntuak eta 23.4 artikulua eta Toki erakundearen antolakuntza, funtzionamendua eta araubide juridikoaren arautegia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 43., 44. eta 45. artikuluek ezarritakoa kontuan harturik, honako hau

Ebazten dut

Lehenengoa. Zuriñe Blas Bouzas zinegotziari eskuordetze berezia ematea baimentzeko 2022ko abuztuaren 13an, 13:00etan, Bastidako udaletxean egingo den ezkontza zibila.

Bigarrena. Ebazpen hau zinegotzi interesdunari jakinaraztea, hurrengo bilkuran udalbatzari haren berri ematea, eta ALHAOn eta udalaren iragarki taulan argitaratzea.

Hirugarrena. Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 44. artikulua 2. apartatuak xedatutakoarekin bat etorriz, eskuordetzeak dekretu hau eman eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Bastida, 2022ko uztailaren 26a

Alkate-lehendakaria
LAURA PEREZ BORINAGA